

FEDERACIÓN VASCA DE DEPORTES AÉREOS

EUSKAL AIRE KIROL FEDERAZIOA

LEHIAKETA ARAUDIAK

1. ERANSKINA: AEROMODELISMOA

2. ERANSKINA: PARAPENTEA

ANEXO 3. ERANSKINA: MOTORDUN HEGALDIA

4. ERANSKINA: AEROESTAZIOA

4. ERANSKINA: DELTA HEGALA

1. ERANSKINA— AEROMODELISMO LEHIAKETAKO ARAUDIA

Araudi horrek aeromodelismo-lehiaketa ofizialetan parte hartzen dutenen gaitasunak, eskubideak eta betebeharrak bideratzen ditu. Pilotu parte-hartzaile guztiek federazioaren lizentzia indarrean eduki beharko dute.

I. ARTIKULUA

Eranskinak honako figura hauek jasotzen ditu:

- ELKARTE ANTOLATZAILEA
- LEHIAKETA ZUZENDARIA
- PISTAKO EPAILEA
- EPAILEAK
- EPAILE NAGUSIA
- TEKNIKARIAK
- KIROLARIAK

DEFINIZIOA

1-1 ELKARTE ANTOLATZAILEA

Euskal Aire Kirol Federazioak izendatutako elkarte da, probintzian lehiaketa ofizialak antolatzeko. Lehiaketa bat antolatzeko eskubidea izateko, dagokion eskaera egin beharko du, araudi zehatza betez.

1-2 LEHIAKETA ZUZENDARIA

Elkarte antolatzaileak izendatuko du, eta lehiaketaren arduradun gorena izango da. Kirol-lizentzia indarrean eduki beharko du, teknikari moduan; horrelakorik hezean, Federazioak jarduera betetzeko baimena eman diezaioke. Estamentu guztietako parte-hartzaileek lizentzia dutela egiaztatu beharko du. Lehiaketaren epaimahaikide izango da, eta haren ardura nagusia lehiaketaren gauzatze zuzena izango da, gai hauei dagokienez: erabilitako azpiegiturak, giza talde kolaboratzailea, frekuentziak kontrolatzea, ordutegiak betetzea, emaitzak prestatzea eta proba aurrera eramateko egoitzaren erabilpenetatik emandako gainontzeko jarduerak.

1-3 PISTAKO EPAILEA

Elkarte antolatzaileak proposatu eta Federazioak onartuko du. Lizentzia indarrean eduki beharko du, eta epaile-homologazioa izan beharko du. Lehiaketako epaimahaikidea izango da, eta haren ardura nagusia lehiaketaren gauzatze zuzena izango da, gai hauei dagokienez: hegaldi-eremua eta haren pistak erabiltzea, hegaldien ordena kontrolatzea eta araudia betearaztea (kirolarien jarduerari dagokienez).

1-4 EPAILEAK

Elkarte antolatzaileak proposatu eta Federazioak onartuko ditu, lehiaketa motaren arabera. Epaille titulua izan beharko dute, edo Federazioaren baimena, epaille gisa jarduteko; halaber, indarrean eduki beharko dute Federazioaren lizentzia. Hegaldi modelook homologatuko eta puntuatuko dituzte, mota bakoitzerako nazioarteko Aire Federazioaren araudiari jarraiki.

1-5 EPAILE NAGUSIA

Epaille parte-hartzaileetako bat epaille gorena izendatuko dute, epailen ordezkaria izan dadin lehiaketa-zuzendariaren aurrean. Lehiaketaren epaimahaikidea izango da, eta haren ardura nagusia *briefing*-ak zuzentzea izango da, araudia behar bezala interpretatzeko eta lehiaketako epailleek izan ditzaketen zalantzei erantzuteko; baita irizpideak bateratzeko ere.

1-6 TEKNIKARIAK

Lehiaketako parte-hartzaileak dira, baina ez dira kirolariak, ezta epailleak ere. Kronometrizaileak, seinale-jartzaileak eta laguntzaileak dira. Lehiaketa bakoitzean teknikari nagusi bat egongo da, eta teknikari gisa homologatuta egongo da, Federazioaren eskutik; haren ardura nagusia izango da gainontzeko kideei araudia irakastea eta zalantzak argitzea, eta haien ordezkapenak eskatzea, behar denean.

1-7 KIROLARIAK

Kirolari izendatuko zaie pilotu parte-hartzaileei eta haien laguntzaileei. Lehiaketan inskribatzen diren pilotuek lizentzia indarrean izan beharko dute.

2. ARTIKULUA

Proba ofizial bateko ELKARTE ANTOLATZAILEAREN eskumenak

- PILOTUAK INSKRIBATZEA
- FREKUENTZIAK EGIAZTATZEA
- PARTE HARTZEKO ORDENA
- KIROL PROGRAMAK
- PUNTUAZIOAK ETA SAILKAPENA
- ANTOLAKUNTZARI EGINDAKO ERREKLAMAZIOAK
- IRABAZLEAK IZENDATZEA
- LEHIAKETAREN KIROL TXOSTENA

DEFINIZIOAK**2-1 PILOTUAK INSKRIBATZEA**

Antolakuntzak aurreikusitako epean izena eman beharko dute pilotuek. Elkarte antolatzaileak epez kanpoko inskripzioak zergapetu ditzake, %40eko portzentajea, gehienez, egoki baderitzo.

2-2 FREKUENTZIAK EGIAZTATZEA

Irrati-kontrola espezialitateetako lehiaketetan, ekipoen igorpen-frekuentziak egiaztatu beharko ditu antolakuntzak, eta bat datozen edo oso gertu dauden frekuentzien zerrenda jakinarazi beharko die pilotuei. Antolakuntzak pilotuei eskatuko die ekipoak edo haien igorpen-moduluak zaindu ditzatela. Espainiaren kasuan, aeromodelismorako bereziki erabilitako frekuentzia-ofizialen banda 35Mhz-koa da, 35.030etik 35.200era arteko kanaletan, 10 Khz-eko tartearekin.

2-3 PARTE HARTZEKO ORDENA

Parte-hartzaileen dortsal-zerrenda argitaratu eta gero, zozketa egingo da, lehenengo proban nork egingo duen hegana erabakitzeko. Hurrengo probetan, irteera ordena jarraituko da, espezialitatean aurreikusitako sistemaren arabera, edo, hala badagokio, izena-eman duten parte-hartzaileen portzentajearen arabera, txanda bakoitzerako. Parte hartzeko ordena jakinarazi beharko da, eta pilotu bakoitzari eman beharko zaio.

2-4 KIROL PROGRAMAK

Elkarte antolatzaileak espezialitatearen beraren kirol-programak emango dizkiete epaileei eta pilotuei, behar diren azterketak egiteko, aurrerapen nahikoarekin.

2-5 PUNTUAZIOAK ETA SAILKAPENA

Pilotu bakoitzak epaileen puntuazioak jasoko ditu, txanda amaitzerakoan. Nazioarteko Aire Federazioaren araudiari jarraiki.

Halaber, behin-behineko sailkapenak jendaurrean jarriko dira, txanda bakoitzaren amaieran. Lehiaketa amaitzen denean epaileei eta pilotuei azkeneko sailkapena emango zaie, lortutako puntuazio partzialekin.

2-6 ANTOKUNTZARI EGINDAKO ERREKLAMAZIOAK

Pilotuek erreklamazioak aurkez diezazkiokete antolakuntzari, idatziz, hegaldiari dagozkion arrazoiak direla eta, lehenengo 30 minutuetan, hegaldia amaitzen denetik. Era berean, pilotuek erreklamazioak aurkez diezazkiokete antolakuntzari, idatziz, lehiaketari dagozkion arrazoiak direla eta, lehenengo 30 minutuetan, hegaldia amaitzen denetik. Erreklamazioak araudiaren interpretazioari buruzkoak izango dira, eta ez epaileen ebaluazio- irizpideari buruzkoak. Antolakuntzak zehaztuko du pilotuak zenbateko abal ekonomikoa eman behar duen. Eta erreklamazioa onartzekotan, abala itzuli egingo zaio.

2-7 IRABAZLEAK IZENDATZEA

Lehiaketa amaituta eta lehiaketa-epaimahaiak aktak eta sailkapenak berrikusi eta sinatu eta gero, elkarte antolatzaileak azkeneko emaitzak jakinaraziko ditu, eta, gero, sariak banatuko ditu.

2-8 LEHIAKETAREN KIROL TXOSTENA

Lehiaketa amaitzen denetik 30 egun igaro eta gero, elkarte antolatzaileak lehiaketaren kirol-txostena bidaliko dio Federazioari (euskarri digitalean).

3. ARTIKULUA

Hona hemen lehiaketa-epaimahaiaren eskumenak, proba ofizial batean:

- MODELOAK EGIAZTATZEA
- HEGALDIRAKO IRRATIAK EDO IGORPEN MODULUAK ENTREGATZEA
- HEGALDIAREN ARDATZA ETA NORABIDEA ZEHAZTEA
- ERREKLAMAZIOAK EBAZTEA

DEFINIZIOAK

3-1 MODELOAK EGIAZTATZEA

Lehiaketa-epaimahaiak laguntzaile bat eska diezaioke antolakuntzari, modeloak aztertzeko eta espezialitate bakoitzeko zehaztapenak betetzen dituztela egiaztatzeko. Halaber, kontrol-eta igorpen-mekanismoak berrikusi ahal izango ditu, gutxieneko segurtasun-neurriak dauden egiaztatzeko, eta pilotuari neurri horietako bat aldatzeko eska diezaioke, behar denean, edo parte-hartzea eragotzi diezaioke, hutsegitea larria denean.

3-2 HEGALDIRAKO IRRATIAK EDO IGORPEN MODULUAK ENTREGATZEA

Irrati-kontrolerako espezialitatean, antolakuntzak irradi-ekipoak gordetzeko leku bat izango du, eta pertsona batek zainduko ditu. Pilotuak igorgailua jasoko du prestatzeko zenbat denbora duen jakinarazten zaionean (hegaldia baino 5-10 minutu lehenago), eta hegaldia amaitu bezain laster eskatuko zaio. Pistako epaileari dagokio irradi-ekipoak entregatzeko agindua ematea; irradi-ekipoak ezingo dira haren baimenik gabe eman, inolaz ere.

3-3 HEGALDIAREN ARDATZA ETA NORABIDEA ZEHAZTEA

Baldintza meteorologikoen arabera, lehiaketa-epaimahaiak hegaldiaren ardatza zehaztuko du, lehiaketan ahalik eta gutxien alda dadin; edonola ere, ezingo du programa edo txanda gauzatzen den bitartean aldatu.

3-4 ERREKLAMAZIOAK EBAZTEA

Lehiaketa-epaimahaiak aurkeztu diren erreklamazioen epaiak emango ditu, eta kirol-aktan hartutako erabakiak jasota utziko ditu, baita lehiaketaren emaitza ere. Aktaren bi ale sinatuko dira; bata elkarte antolatzaileak jasoko du, eta bestea, berriz, Federazioak. Akta hori kirol-txostenarekin batera igorriko da, 30 egun igaro aurretik, lehiaketa amaitzen denetik.

4. ARTIKULUA

Lehiaketa batek hiru parte-hartzaile izan beharko ditu, gutxienez, ofiziala izateko.

5. ARTIKULUA

Antolakuntzak frekuentzimetra edo eskanerra izatea derrigorrezkoa da, eremu erradioelektrikoa egiaztatzeko. Gailu horietako bat ere ez badu, Federazioarena erabil dezake.

2. ERANSKINA— PARAPENTE LEHIAKETAKO ARAUDIA

Araudi horrek parapente-lehiaketa ofizialetan parte hartzen dutenen gaitasunak, eskubideak eta betebeharrak bideratzen ditu. Pilotu parte-hartzaile guztiek federazioaren lizentzia indarrean eduki beharko dute.

1. ARTIKULUA

Eranskinak honako figura hauek jasotzen ditu:

- ELKARTE ANTOLATZAILEA
- LEHIAKETA ZUZENDARIA
- EPAIMAHAIA
- KIROLARIAK
- GOL BURUA (hautazkoa)
- PILOTU BATZORDEA
- SEGURTASUN BATZORDEA

DEFINIZIOA

1-1 ELKARTE ANTOLATZAILEA

Euskal Aire Kirol Federazioak esleitutako elkarte da, probintziako lehiaketa ofizialak antolatzeko. Lehiaketa bat antolatzeko eskaera egin beharko du, dagokion araudia betez.

1-2 LEHIAKETA ZUZENDARIA

Elkarte antolatzaileak izendatuko du, eta lehiaketaren arduradun gorenaz izango da. Teknikariaren kirol-lizentzia indarrean eduki beharko du, eta, horrelakorik hezean, Federazioak jarduera betetzeko baimena eman diezaioke. Betebehar hauek izango ditu:

- a) Arauak eta arautegiak betearaztea.
- b) Txanda bakoitzean egin beharreko jarduera erabakitzea, pilotu-batzordearen eta jasotzeko ardura duten antolatzaileen aholkularitzarekin.
- c) Irteera-leihoak irekitzea edo ixtea erabakitzea, baldintza meteorologikoen arabera.
- d) Aireratze-eremuko jarduerak koordinatzea eta antolatzea.
- e) Lehiakideen aireratzea baimentzea eta erregistratzea.
- e) Txanda bere horretan uztea, baldin eta hegan egitea arriskutsua bada, baldintza meteorologikoak direla eta.
- f) Lehiakideek aurkeztutako erreklamazioak jasotzea.
- g) Estamentu guztietako parte-hartzaileek lizentzia dutela egiaztatzea.
- h) Pilotuen bilera zuzentzea (briefing), araudia behar bezala interpretatzeko, eta eman daitezkeen zalantzak argitzea.

Lehiaketa-zuzendariak laguntzaile bat/ batzuk izenda dezake/ditzake zeregin horietarako.

1-3 EPAIMAHAIA

Elkarte antolatzaileak proposatu eta Federazioak onartuko ditu, lehiaketa motaren arabera. Epaimahaikideen titulazioa izan beharko du, edo Federazioaren baimena. Epaimahaikideei dagozkien zeregin hauek:

- a) Proba gainbegiratzea, eta kirolaren aurkako portaeren eta arau edo araudien ez-betetzeen berri ematea, baita lehiakideen edo publikoaren segurtasunerako –edo, nolabait, kirolerako– kaltegarriak diren portaeren berri ematea ere.
- b) Pilotuek aurkeztutako GPS arrastoak aztertzea, eta haien baliotasuna zehaztea.
- c) Lehiaketa-zuzendariari eta gainontzeko antolatzaileei aholkuak ematea, beren zereginak betetzerakoan.
- d) Antolatzaileei eskatzea araudi honetan jasotakoa bete dezatela, eta baita ere aplikagarriak diren beste araudietan eta arauetan jasotakoa, beharrezkoa bada. Antolatzaileek jarraibideak betetzen ez badituzte, epaile nagusiak proba gelditzeko ahalmena du, egoera aztertzeko epaimahaia bildu arte. Kasu horretan, epaimahaia proba baliogabetu dezake.
- e) Probaren arauak eta araudiak interpretatzea.
- f) Pilotuek aurkeztu dituzten erreklamazioak baloratzea, eta haien inguruan erabakitzea.
- g) Zigorak adostea, eman daitezkeen kirol-diziplinaren arau-hausteengatik.
- h) Parte-hartzaileen parapenteak aztertzea, eta inskribatuta dauden mailako zehaztapenak betetzen dituzten erabakitzea.

Horretarako, Nazioarteko Aire Federazioaren araudia hartuko dute oinarritzat.

1-4 KIROLARIAK

Kirolari izendatuko zaie pilotu parte-hartzaileei eta haien laguntzaileei. Lehiaketan inskribatzen diren pilotuek federazioaren lizentzia indarrean izan beharko dute, baita lehiaketa-pilotuaren gaikuntza ere.

1-5 GOL BURUA

Gol-buruak egiaztatuko du zer ordutan iritsi diren pilotuak golera, baldin eta iritsi badira.

1-6 PILOTU BATZORDEA

Pilotu-batzordeari dagokio lehiaketa-zuzendariari aholkuak ematea, aireratze-eremua eta txanda bakoitzean egin beharreko jarduera hautatzeko; halaber, beste edozein gairi buruz aholkuak emango dizkio, hala eskatzen badio. Kategoría bakoitzeko pilotu bat eta tokiko pilotua egongo dira pilotu-batzordean. Kategoría jakin bateko pilotuek izena ematen ez badute, lehiaketa-zuzendariak tokiko beste pilotu bat aurkez dezake. Pilotu-batzordeak EGURALDIARI BURUZKO INFORMAZIO eguneratua izango du, NAHITAEZ. Hautagairik ez balego, lehiaketa-zuzendariak bere aukerako pilotuak izendatuko ditu.

1-7 SEGURTASUN BATZORDEA

Pilotu-batzordeak eta lehiaketa-zuzendariak osatuko dute segurtasun-batzordea. Segurtasun-batzordeari dagozkio betebeharrak hauek: aireratzean eta ibilbidean segurtasun-mugak ezartzea eta onartzea; lehiaketa-zuzendariari aholkuak ematea eta eman daitezkeen arriskuen inguruan

prebenitzea, baita txanda aurrera eramaten denean ere; eta txanda noiz balio gabetuko den erabakitzea, arriskurik baldin badago. Segurtasun-batzordeak txanda erabakitzeko, atzeratzeko edo balio gabetzeko ahalmena izango du, beharrezkoa balitz.

2. ARTIKULUA

PILOTUAREN ERANTZUKIZUNA

Parte-hartzailearen erantzukizuna da aireratzea eta hegan egitea. Berak erabakiko du aireratu den edo ez; beraz, baldintza meteorologikoak ebaluatu behar ditu, eta bere gaitasunekin eta hegalarekin alderatu, erabakia hartu aurretik. Ahalik eta kontu handienarekin hegan egin behar du, eta aire-egoeraren baldintzak etengabe zaindu, eta komeni bada, lur hartu, baldintza meteorologikoak direla eta.

3. ARTIKULUA

HEGALDIRAKO EKIPOA

Pilotuak ekipo hau eramango du hegaldian:

Parapentea.

Kaskoa; hegaldi osoan lotuta eraman beharko du.

GPSa.

Segurtasuneko paraxuta.

VHF/ 2 m irrati igorlea-hartzailea.

Mugikorra.

Aulkia edo arnesa.

Lehiaketa-zuzendariak edo epaileek pilotuaren ekipoa berrikusi ahal izango dute, uneoro, eta hegan egitea debekatu diezaiokete, baldintza minimo horiek betetzen ez baditu.

4. ARTIKULUA

GPSa.

Pilotu bakoitzak GPS sistemaren nabigatzaile eramangarria izango du, gutxienez, ibilbidea memorizatzeko, eta, gero, hegaldia egiazatzeko eta baliozatzeko. GPS guztiak ez datoz bat baliozkatze-programekin; horregatik, pilotuaren ardura izango da baliozkoak diren modelo-zerrendaren berri izatea. Pilotua da bere aparatuen funtzionamendu, mantentze, eta konfigurazio onaren erantzule bakarra. Pilotuak lehiaketa bakoitzeko inskripzio-orrian jasota utziko ditu GPS serie zenbakiak. Baliozkatze-programari lana errazteko, antolatzaileak pilotuei eska diezaieke GPSan igaroleku berria sar dezatela, "N-x" izenekoak. "N-gidoia-dorsal-zenbakia", hutsunerik gabe.

6. ARTIKULUA

PARAPENTEA

Parapentea segurtasunez hegan egiteko baldintzatan egongo da. Lehiaketa-zuzendariak edo epaimahaiak probaren edozein unetan berrikusi dezake parapentea, eta, beharrezkoa bada, hegan egin dezala eragotzi dezake, segurtasun arrazoiak direla eta. Probak iraun bitartean ezin

da parapentea aldatu, premiazko konponketak egiteko ez bada, behinik behin. Parapentea konpondu beharko balitz, edozein aldaketak hasierako zehaztapenak bete behar ditu, zehatz-mehatz. Parapentea hondatzen bada, lehiaketa-zuzendariari jakinarazi beharko zaio, lehenbailehen, konpondu aurretik. Parapentea marka, modelo eta neurri bereko edo antzeko beste batengatik aldatzeko baimena eman dezake lehiaketa-zuzendariak, edo prestazio berak edo gutxiago dituen beste batengatik, pilotuaren kontrolpean ez dauden narriadura, galera edo lapurreta arrazoiak direla eta. SERIE-MAILAN inskribatutako pilotuen parapenteez ezin dute aldaketarik jasan oihalak, kordelak, bandak eta abiadura aldatzeko elementuen neurri dagokienez, eta hasierako homologazio-planoak bete beharko dituzten. Homologatu gabeko ekipoen kasuan, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

Linea-diagrama
Zama-proba.

Proba hori ez dutenen kasuan, lehiaketa-zuzendariak erabakiko du parapentearen fabrikatzaileak igorritako "Permit to fly" onartu edo ez.

7. ARTIKULUA

IRRATI TRANSMISOREAK

Hegaldian, derrigorrezkoa da pilotu-bileran zehaztutako segurtasun-frekuentzia sintonizatzea igorlean, edo beste baliabide bat ziurtatzea, lehiaketa-zuzendariak segurtasun-frekuentzian emandako aginduen berri izateko, etengabe. Beste frekuentzia batzuk ere erabil daitezke gainontzeko pilotuen edo lurreko laguntza jasotzeko. 'Vox'-en (ahots transmisioa kontrolatzea) erabilera debekatuta dago lehiaketa-zuzendariak adierazitako segurtasun-frekuentzian. Halaber, frekuentzia hori erabiltzea debekatuta dago probaren segurtasunarekin zerikusirik ez duten gaietarako.

8. ARTIKULUA

LASTAK

Erabili eta botatzeko lastak erabil daitezke, urez edo hondar finez beteta, bakar-bakarrik. Pilotuek ez dute lastarik botako beste lehiakide batzuei kalte egin badiezaiekete. Ekipoaren pisua, lasta barne, 33 kilokoa izango da, gehienez ere.

9. ARTIKULUA

PILOTU BILERA

Lehiaketa-zuzendariak pilotu-bilera bat deituko du, gutxienez, txanda bakoitzaren aurretik, txandari buruz informazioa emateko. Pilotuen ardura da bilera-deialdien berri izatea, eta baita bileretara bertaratzea ere. Lehiaketa-zuzendariak pilotu-bilera atzeratu dezake, edo bilera berria deitu, beranduago, baldin eta txanda horretako jarduera erabaki ez badute. Aireratze-eremuan oraindik piloturik irten ez bada, lehiaketa-zuzendariak pilotu-bilera dei dezake edozein unetan, eta informazioak gehitu edo alda ditzake, baita hautatutako jarduera ere, eguraldia dela eta.

10. ARTIKULUA

IRTEERA LEIHOA

Hegaldia puntuatzeko, pilotu-bileran adierazitako irteera-leihoaren irekiera-orduaren eta itxiera-orduaren artean bakarrik aireratu daiteke. Pilotu bakoitzak 30 segundo izango ditu aireratzeko; tarte hori zabalagoa izango da, ordea, aireratze-eremuaren ahalmenaren arabera. Segurtasun-arrazoiak direla eta, lehiaketa-zuzendariak irteera-leihoak itxi dezake une batez, puntuatu daitekeen hegaldia eragotziz. Kasu horretan, irteera-leihoak ixteko ordua atzeratu egingo da itxita egon den denboran, luza daiteken denbora gainditu gabe. Txanda baliogabetu egingo da, baldin eta irteera-leihoaren irekiera denbora nahikoa ez bada pilotu guztiek gutxienez behin aireratzeko aukera izan dezaten.

11. ARTIKULUA

PROBAKO HEGALDIAK

Lehiaketa-egunean, lehiakideek ezingo dute hautatutako aireratze-eremutik aireratu, lehiaketa-zuzendariaren baimenik ez badute. Lehiaketa-zuzendariak baimena eman dezake proba-hegaldia egiteko. Hegaldia egin eta gero, pilotuak lur hartu behar du, eta lehiaketako aireratze bat egin behar du, irteera-leihoaren barruan, puntuak jasotzeko.

12. ARTIKULUA

AIRERATZE KOPURUA

Lehiaketa-zuzendariak pilotu-bileran kontraktorik adierazi ezean, pilotu bakoitza behin bakarrik aireratu daiteke txanda bakoitzean. Ezohiko kasuetan, segurtasun arrazoiak direla eta, lehiaketa-zuzendariak bigarren aireratze bat baimendu dezake, arazo bat dagoela egiaztatu eta gero. Txanda bakarrean hainbat aireratze egin badaitezke, pilotu-bileran jakinaraziko dira zeintzuk diren jasotzeko gunea eta garraio-ordutegiak, antolakuntzak aireratze-eremura bueltatzeko eskura izango dituenak. Lehiaketako bi aireratze horien artean pilotuek ezin dituzte erabili bestelako garraio eta laguntza motak.

13. ARTIKULUA

HEGALDIA

Pilotuek arreta berezia jarri beharko dute jarduera hauetarako: hegaldiko lehentasunezko arauak eta gainontzeko aire-araudia errespetatzea, etengabe gainbegiratzea beste aireontzirik dagoen, eta kontu handiz hegan egitea. Pilotu-bileretan emandako zirkulazio-zuzentarauak errespetatu behar dituzte, termikaren biratze norabidea, bereziki, aireratze-eremutik gertu. Parapenteek fabrikatzaileak ezarritako mugen barruan hegan egin beharko dute. Debeekatuta dago beste lehiakideentzako eta publikoarentzako arriskutsuak diren maniobrak egitea. Batez ere, debeekatuta dago hegala edo hegal-zatia beherantz inklinatzea (beherantz inklinatzea, ginbaneteran jaustea, B bandak beherantz inklinatzea...) eta baita ere izugarri azkarrak diren jaitsierak (ginbalet-eran), baldin eta arriskuren batetik ihes egiteko oso azkar jaitsi behar ez bada. Guztiz debeekatuta dago lainoen barrutik hegan egitea. Hegalak bi minutu baino gehiago badaramatza lurrean hedatuta, istripua egon da. Pilotuak halakorik edo laguntza eske dagoen norbait ikusten badu, berehala jakinarazi beharko dio antolakuntzari, eta, ahal badu, eta antolakuntzak

horretarako baimena ematen badio, laguntza eman diezaioke istripua izan duenari. Pilotuek segurtasun-frekuentziatik igorritako informazioak jasotzeko bitartekoa izan beharko dute, hegaldian.

14. ARTIKULUA

ISTRIPUA IZAN DUEN PILOTU BATI LAGUNTZA EMATEA

Lur hartu duen pilotuak bere parapentea jaso beharko du, lehenbailehen. Parapentea zabalik uzten duen pilotuak laguntza behar du. Istripua izan duen kidea laguntza eske badago, edo laguntza behar badu, pilotuek laguntza eman beharko diote, ahal duten neurrian.

15. ARTIKULUA

Lehiaketa batek hiru parte-hartzaile izan beharko ditu, gutxienez, ofiziala izateko.

3. ERANSKINA—MOTORDUN HEGALDI LEHIAKETAKO ARAUDIA

Araudi horrek motordun hegaldi-lehiaketa ofizialetan parte hartzen dutenen gaitasunak, eskubideak eta betebeharrak bideratzen ditu. Pilotu parte-hartzaile guztiek federazioaren lizentzia indarrean eduki beharko dute.

I. ARTIKULUA

Eranskinak honako figura hauek jasotzen ditu:

- ELKARTE ANTOLATZAILEA
- LEHIAKETA ZUZENDARIA
- EPAILEAK
- EPAILE BURUA
- TRIPULAZIOA
- EPAIMAHAIA

DEFINIZIOA**1-1 ELKARTE ANTOLATZAILEA**

Euskal Aire Kirol Federazioak esleitutako elkarte da, probintziako lehiaketa ofizialak antolatzeko. Lehiaketa bat antolatzeko eskubidea izateko, dagokion eskaera egin beharko du, araudi zehatza betez.

1-2 LEHIAKETA ZUZENDARIA

Elkarte antolatzaileak izendatuko du, eta lehiaketaren arduradun gorena izango da. Kirol-lizentzia indarrean eduki beharko du, teknikari moduan; horrelakorik hezean, Federazioak jarduera betetzeko baimena eman diezaioke. Estamentu guztietako parte-hartzaileek lizentzia dutela egiaztatu beharko du. Lehiaketaren epaimahaikide izango da, eta haren ardura nagusia lehiaketaren gauzatze zuzena izango da, gai hauei dagokienez: erabilitako azpiegiturak, giza talde kolaboratzailea, ordutegiak betetzea, emaitzak prestatzea eta proba aurrera eramateko egoitzaren erabilpenetatik emandako gainontzeko jarduerak.

1-3 EPAILEAK

Elkarte antolatzaileak proposatu eta Federazioak onartuko ditu, lehiaketa motaren arabera. Epaille titulua izan beharko dute, eta Federazioaren baimena izan beharko dute, epaille gisa jarduteko; halaber, indarrean eduki beharko dute Federazioaren lizentzia. Hegazkinak eta hegaldien puntuazioak homologatuko dituzte, mota bakoitzerako Nazioarteko Aire Federazioaren araudiari jarraiki. Irekierako briefing-ean jasotako rol guztiak argi geratu behar zaizkie epaille eta parte-hartzaile guztiei. Arau horiek zehazten dituen oinarrizko dokumentua da Nazioarteko Aire Federazioaren Kirol Kodearen Atal Orokorraren bertsio balioduna. Lehiaketa-zuzendariak ez du

epaileen ebaluazioan parte hartuko, inolaz ere. Zehaztapeneko lur-hartzeak lur-hartzeen epaile buruak kontrolatuko ditu, epaile-buruak edo berak bere burua izendatu eta gero. Epaileak lur-hartzeari buruz erabakirik hartzeko gai ez badira, bideo-grabazioa begiratuko dute. Hala eta guztiz ere behin betiko erabakia hartu ezin badute, lur-hartzeen epaile-buruak hartuko du azken erabakia. Ezohiko lur-hartzearen kasuan, lur-hartzeen epaile-buruak kontsulta egin beharko lieke lur-hartzeen beste bi epaileri, gutxienez, eta bideo-grabazioak egiaztatu beharko lituzkete. Epaileei jarduteko beharrezko informazioa bakarrik emango zaie. Penalizazio-orriek informazio hau jasoko dute:

- Rally zenbakia.
- Hegazkinaren matrikula.
- Hegazkin mota eta kolorea.

Orri horietan ezin dira jaso tripulatazaileen izenak.

GPS Loger erabiltzea derrigorrezkoa da, ibilbideetatik pasa direla kontrolatzeko, eta haren funtzionamendu ona lehiakidearen beraren erantzukizuna da.

1-5 EPAILE BURUA

Epaile parte-hartzaileetako bat epaile-buru izendatuko dute, epaileen ordezkaria izateko lehiaketa-zuzendariaren aurrean. Lehiaketaren epaimahaikidea izango da, eta haren ardua nagusia *briefing*-ak zuzentzea izango da, araudia behar bezala interpretatzeko eta lehiaketako epaileek izan ditzaketen zalantzei erantzuteko; baita irizpideak bateratzeko ere. Epaile-buruak epailearen kalifikazioa aintzat hartu beharko du, edo, bestela, Federazioak gaitu beharko du.

1-6 TRIPULAZIOA

Pilotuak eta kopilotu/nabigatzaileak osatuko dute tripulazioa. Lehiaketan inskribatzen diren pilotuek lizentzia indarrean izan beharko dute, eta baita ere pilotu pribatuaren lizentzia, edo goragoko lizentzia, behar bezala balioztatuta. Lehiaketan ezingo dute bidaiaririk eraman, probako zuzendariaren baimenik ez badute, behinik behin.

1-7 EPAIMAHAIA

Hiru pertsonak osatuko dute, gutxienez, eta kirol-lizentzia indarrean eduki beharko dute; halaber, beharrezko ezagutzak izango dituzte jarduera aurrera eramateko.

2. ARTIKULUA

2-1 Lehiaketa ikusizko baldintza meteorologikoetan bakarrik eraman daiteke aurrera, Nazioarteko Abiazio Zibilaren Erakundeak jasotakoari jarraiki, eta, halaber, nazioko Ikusizko Hegaldi Arau orokorrak bete beharko dira. Lehiaketan baldintzak okertzen badira, pilotuak erabakiko du aurrera jarraitu edo ez.

2-2 Lehiaketa edo beste edozein etapa atzeratu, aldatu edo baliogabetu daiteke, eguraldiagatik edo beste edozein arrazoi batengatik, lehiaketa-zuzendariak hala erabakitzen badu, epaile-buruari kontsulta egin eta gero.

3. ARTIKULUA

Lehiaketaren ordu ofiziala tokiko ordua edo UTC izango da. Erloju master bat egongo da, lehiakideek erlojuak orduan jar ditzaten.

4. ARTIKULUA

4-1 Tripulazio bakoitzak hegazkin berarekin hegan egingo du lehiaketa osoan. Matxuraren bat ematen bada, lehiaketa-zuzendariak hegazkina aldatzeko baimena eman diezaioke.

4-2 Aireratzeko arazorik egongo balitz (hegazkinarena edo GPS-Logger-arena) tripulazioak ez du hegazkinetik atera behar, ezta bere ekipoarekin harremanetan jarri behar ere. Irratiz deitu beharko dio lehiaketa-antolakuntzari, egoeraren berri emateko eta jarraibideak jasotzeko.

5. ARTIKULUA

5-1 Elkarte antolatzaileak adieraziko du zein kartografia erabili behar den; ez du zertan aeronautikoa izan behar.

5-2 Etapa bakoitzaren aurretik zerrenda bat argitaratuko da, irteera ordenarekin eta denborekin. Aireratzeen artean bi minutu igaroko dira, gutxienez. Aeroklub bereko tripulazioen kasuan, antolatzaileak sei minutuko edo gehiagoko tarte ezarriko du aireratze batetik bestera, teknikoki ezinezkoa denean izan ezik.

5-3 Ezin da laguntza elektronikorik erabili, eta baimendu gabeko gailu guztiek zigilatuta egon beharko dute, edo antolatzaileak zaindu beharko ditu hegaldian. Hegazkina, tripulazioak eta ekipaje pertsonala ikuskatuko dira, baimenik gabeko nabigazio- eta komunikazio-ekipoak bilatzeko, eta kentzeko, baleude. Ikuskapenak amaituta egon beharko du hegaldirako jarraibideen gutuna eman baino 5 minutu lehenago.

5-4 Lehiaketa-hegaldian arau horiek eta hegaldirako jarraibideak (rutometroa) bete beharko dira.

6. ARTIKULUA

6-1 Lehiaketan, leherketa-motordun hegazkinak eta turbina duten hegazkinak erabiliko dira, Nazioarteko Aire Federazioaren Kirol Kodearen azkeneko edizioaren 2. ataleko C-1 (a, b, c, d) eta C-3 (a, b, c) azpimotetan jasotakoaren arabera; baita motobelaontziak ere, Nazioarteko Abiazio Federazioaren Kirol Kodearen azkeneko edizioaren 3. atalak jasotakoaren arabera, erretraktila ez den motorrarekin, eta 3 gurpiletako lur-hartzeko tren konbentzionalarekin (turismoen motobelaontzia).

6-2 Lehiaketan onartuta dagoen gutxieneko abiadura 130 km ordukoa da. Aitortutako lehiaketa-abiadurak 10 km/orduko multiploak izango dira.

6-3 Hegazkinak autonomia izan beharko du etapa luzeena lehiaketa-abiaduran egiteko, gehi % 10, eta erregai-erreserba bat izan beharko du VFR baldintzak betetzeko.

6-4 Hegazkin guztiek irrati bat eraman beharko dute komunikatzeko.

6-5 Lehiaketan parte hartuko duten hegazkin guztiek (lehiaketa-hegazkinak eta laguntzaileak) hirugarrenen kalteen aurka aseguratuta egon beharko dute, eta Rally-etarako estaldura eduki beharko dute, espresuki. Aseguru-ziurtagiria eman beharko zaio antolakuntzari.

7. ARTIKULUA

7-1 Nahitaezkoa da jarraian aipatzen direnak briefing-etara bertaratzea.

7-2 Lehiaketa-zuzendariak emango dio hasiera irekierako briefing-ari, eta kide hauek bertaratuko dira: aire-bideen antolatzailea, epaimahaia, epaileak, ekipo-zuzendariak eta tripulazio guztiak. Lehiaketako ofizial guztiak bertaratuko dira. Helburua da lehiaketaren nondik norakoak, programa, murriztapenak, komunikazio-frekuentziak eta penalizazioetarako oinarriak azaltzea.

7-3 Lehiaketa-zuzendariak azalduko du lehiakideen briefing-a, eta kide hauek bertaratuko dira: epaimahaia, epailak, ekipo-zuzendariak eta tripulazio guztiak. Lehiakideen briefing-a eta irekierako briefing-a konbina daitezke.

7-4 Epaile buruak emango du epaileen briefing-a, eta epaile guztiak bertaratuko dira.

7-5 Eguneko briefing-era ekipo-zuzendariak bertaratuko dira, eguneko programari jarraiki. Eguraldiari buruzko briefing-a jaso behar da.

7-5.1 Aireratu aurreko eguraldia eta eguraldi-iragarpenak argitaratu behar dira, idazkera garbia erabilia, eta EZ KODEAK. Hurrengo egunerako iragarpenak ere eskuragarri egon beharko luke, ahal den heinean.

7-5.2 Iragarpen orokorrak jasota geratuko dira briefing-gelaren kanpoko albiste-taulan, eguneko lehenengo briefing-a hasi aurretik, eta eguneratu egingo dira.

7-5.3 Etapa bakoitzean hegazkin bat egon beharko litzateke, egoera meteorologikoa egiaztatzeko. Epaimahaikide bat edo epai-burua ere egiaztapeneko hegaldian egongo dira.

7-5.4 Lehiaketaren gutxieneko baldintza meteorologikoak ikusizko hegaldiarenak dira.

8. ARTIKULUA

7-1 Emaizak ahal bezain laster argitaratuko dira, kexa guztiak aztertu, zuzenketak egin eta epaile-buruak eta epaimahaiak emaitzak berretsi eta gero.

7-2 Emaizak eta master-mapa iragarki-taulan azalduko dira. Edonola ere, ekipo bakoitzak emaitzen kopia jaso beharko du. Gainera, zerrenda bat argitaratu beharko da, baliogabetu diren argazki, panel edo biratze-puntuekin.

7-3 Azken emaitzak osatuta eta kexak amaituta, tripulazioei erantzun-orriak eta kexak itzuliko zaizkie. Beharrezkoa balitz, lehiaketa-zuzendariak interesdunari bidaliko dizkio, lehiaketa amaitu bezain laster.

9. ARTIKULUA

Nazioarteko Aire Federazioaren lehiaketa-araudia oinarritzat hartuko dute lehiaketa-araudi honetan jaso gabeko gaietarako: arauak, puntuazioak, homologazioak, eta abar.

10. ARTIKULUA

Lehiaketa batek hiru parte-hartzaile izan beharko ditu, gutxienez, ofiziala izateko, eta bi etapa, gutxienez, lehiaketa gisa baliotasuna izateko.

4. ERANSKINA—AEROESTAZIO LEHIAKETAKO ARAUDIA

Araudi horrek aeroestazio-lehiaketa ofizialetan parte hartzen dutenen gaitasunak, eskubideak eta betebeharrak bideratzen ditu. Pilotu parte-hartzaile guztiek federazioaren lizentzia indarrean eduki beharko dute.

1. ARTIKULUA

Lehiaketak gutxienez bi eguneko iraupena izango du, eta hiru hegaldi izan ditzake (goizez eta arratsalde, eta azkeneko egunean goizez bakarrik) Lehenengo hegaldiaren aurreko egunean, arratsalde, dokumentazioa hartuko eta egiaztatuko da, baita briefing orokorra ere.

2. ARTIKULUA

BEHARREZKO LANGILEAK:

Langile guztien joan-etorriak ordaindu beharko dira, baita ostatu eta mantenu gastuak ere. Pertsona berak hainbat zeregin bete ditzake, antolakuntzaren ustez.

2-1 LEHIAKETA ZUZENDARIA

Lehiaketa-zuzendariak eta ofizial batek proposatu den hegaldirako zona bisitatu beharko dute, aurretik, antolatzailearekin. Antolatzaileak ordainduko ditu joan-etorriak. Ekitaldiaren antolatzaileak-sustatzaileak berak hautatutako zuzendaria badu, Federazioak berretsi beharko du.

2-2 INFORMATIKOA.

2-3 LEHIAKETAREN ZUZENDARIORDEA.

Federazioak eta zuzendariak proposatuko dute.

2-4 OFIZIALAK

Federazioak proposatuko du.

2-5 SEGURTASUNeko OFIZIALA.

Lehiaketaren zuzendaritzarekin lankidetzan, araudia oso ondo ezagutu behar du.

2-6 GAS ZAMAREN OFIZIALA.

Gas-zama gainbegiratu behar du, eta arreta berezia jarri behar du gai hauei dagokienez: ibilgailuen arteko distantzia zama-zonara arte, mugikorrek itzalita izatea, zigarroak, eta abar. Federazioaren kargura izan daiteke prestakuntza.

2-7 EGURALDIAREN OFIZIALA ETA TEODOLITOA. Proba bakoitzaren aurretik haize-irakurketak egingo ditu eta teodolitoa egoera onean dagoen aztertuko du.

2-8 LEHIAKETA OFIZIALAK. Besteak beste, proban ezarritako helmugetara bertaratuko dira, eta lekukoak neurtuko dituzte; halaber, esleitzen dizkieten funtzioak beteko dituzte, zuzendariari laguntzeko.

2-9 Epaimahaiaren lehendakaria: beharrezkoa da lehiaketan protestak ebatzi behar badira. Antolatzailleak proposa dezake, baina Federazioak onartu beharko du.

3. ARTIKULUA

BALIABIDE MATERIALAK

3-1 Mapak: 1:50.000 eskalakoak (Ejertzitoaren L seriea edo antzekoa). Ekipo bakoitzak bi mapa-joko jaso beharko ditu, eta ofizial bakoitzak mapa-joko bat, gehi antolakuntzak behar dituenak. Antolakuntzaren kargura izango dira kostuak. Zuri beltzeko fotokopiak ez dira onartuko. Gainera, pilotuek mapa berak izan beharko dituzte, formatu digitalean.

3-2 Teodolitoa.

3-3 Softwarea: proba-orriak, ikusle-orriak eta puntuazioak jasotzen ditu, besteak beste.

3-4 Globoen hegaldiei jarraipena egiteko GPSak: lehiakideek homologatutako GPS bana jasoko dute, Garmin E-trex adVenture markakoa, antolakuntzaren eskutik, hegaldi bakoitzean. Antolakuntzak GPSak ez baditu, Federazioak eman ahal izango ditu, baita bateria-kargagailua ere, eta beharrezkoa den beste edozer.

3-5 Lehiaketaren elementuak: batzordearen ardura da elementu hauek ematea: globoak, helioa, seinale-klaxonak, lekukoei seinaleak jartzeko spray-a, bridak, autoentzako dortsalak, lekukoak, helmugak, banderak, txalekoak, aireeratze-ofizialentzako bereizgarriak, eta abar.

3-6 Ordenagailuak, inprimatzaileak, internet konexioa, telefonoak eta fotokopiagailua: Antolakuntzak eman beharko ditu, baita ordaindu ere. Eta baita ere gainontzeko bulego-materiala: orriak, errotuladoreak, arkatz gainmarkatzaileak, eta abar.

3-7 Autoak alokairuan: beharrezkoak dira epaileak eta ofizialak aireeratze-eremura eramateko, helmugan neurketak egin ditzaten. Antolakuntzak kudeatuko eta ordainduko ditu.

4. ARTIKULUA

PROPANOA

4.1 Hornitzaileak kudeatzea: antolakuntzari dagokio, oso-osorik. Lehiakideen zerbitzuetako bat izango da propanoa hornitzea, kostu osagarriarik gabe; antolakuntzak aurrekontuan onartu beharreko partida bat da.

5. ARTIKULUA

AZPIEGITURA

5-1 Lehiaketa-eremua: antolakuntzak proposatuko du lehiaketa-eremua, eta Federazioak onartuko du, maila horretako globo-lehiaketari egokitzen zaion heinean, edo lehiaketaren zuzendariak hautatuko du zuzenean.

5-2 Lehiaketa-bulegoa: fotokopiagailua, ordenagailuak, inprimatzailea, telefonoa eta internet-konexioa izango ditu, lehiaketa-zuzendariak erabili ahal izateko, nahi duenean.

5- Briefing-gela: gaitasun nahikoarekin, ekipo bakoitzerako mahaia eta aulkiak izango ditu, ekipo bakoitzeko bi pertsonentzako, gutxienez. Komeni da gelan megafonia izatea.

5-4 Aireratze komunerako eremua (CLP): hamar globo aldi berean puzteko ahalmena izan behar du. Araudian jasota egongo dira haren koordinatuak, lehiaketa-zuzendariarekin adostasunean. Komeni da eremu hori herrigunetik ahalik eta hurbilen egotea, publikoaren irismenerako (ordezko CLPa).Eztingo da tentsio altuko kablerik egon, goitik, ezta ehun metrotik beherako distantzian ere, perimetro osoan. Perimetroak hesituta egon beharko du, eta udaltzaingoak sarrera murriztuko du; lehiakideen, prentsaren eta antolakuntzaren ibilgailuei bakarrik utziko die sartzeko, horretarako baimena baldin badute, behinik behin. Eremu horretako zorua irregularra bada, makina pasako da, aurretik, lursaila lautu eta sastrakaz garbitu dezan.

5-5 Gasez kargatzeko eremua: toki irekian eta zabalean, hesituta, upel-kamioiarentzako eta zama "olagarroaren" kokapen zehatzerako. Konpainia hornitzailearen teknikariek eta segurtasun-ofizialak gainbegiratuta.

6. ARTIKULUA

BEHARREZKO BESTE KUDEAKETA BATZUK

6-1 NOTAM eskaera. Abiazio Zibileko Zuzendaritza Orokorrek NOTAM bat argitaratu behar du, lehiaketaren aire-jarduerari buruz informazioa emateko: erreserbatuko den aire-espazioa, data zehatzak, ordutegiak, koordinatuak, eta gehienezko igoera.

Lehiaketa egin baino berrogei egun lehenago eskatu beharko da argitalpena. NOTAMean antolakuntza izango da arduradun teknikoa. Behar izanez gero, batzordeak egin dezake NOTAM eskaera.

6-2 Esleipena: Federazioak bakarrik du lehiaketa ofiziala esleitzeko eskumena.

7. ARTIKULUA

Diru-kontu guztiak (urrekontua, diru-sarrerak, gastuak, fakturazioa...) erakunde antolatzailearen eskumenekoak izango dira, eta haren IFK zenbakia izango dute.

8. ARTIKULUA

Lehiaketa batek hamabi parte-hartzaile izan beharko ditu, gutxienez, ofiziala izateko.

2. ERANSKINA— DELTA HEGALA LEHIAKETAKO ARAUDIA

Araudi horrek delta hegaleko lehiaketa ofizialetan parte hartzen dutenen gaitasunak, eskubideak eta betebeharrak bideratzen ditu. Pilotu parte-hartzaile guztiek federazioaren lizentzia indarrean eduki beharko dute.

1. ARTIKULUA

Nahitaez erabili beharreko ekipoa:

- Arnesa
- Kaskoa.
- Larrialdietarako paraxuta.
- Segurtasuneko soka bikoitza.
- 2 metroko igorlea.

2. ARTIKULUA

Guztiz debekatuta daude jarduera hauek:

- Edozein oztoporen gainetik hegan egitea (linea elektrikoak, etxeak, zuhaitzak), 50 metroko altueran, gutxienez.
- Aireratzea, baldin eta haizeak delta hegala gehienezko abiaduraren %75 gainditzen badu.
- Aireratzea, baldin eta haizeak aireratze-norabidea 45° baino gehiago desbideratzen badu.
- Fabrikatzaileak gomendatutako hegal-zamen mugetatik kanpo hegan egitea.
- Aerologia turbulentuan hegan egitea.
- Bizkar-haizearekin aireratzea.
- 50 metrotik beherako aireratze-zonen gainetik hegan egitea, beste hegal batzuk igota baldin badaude.
- Debekatuta dago hegan egitea aireportuetako segurtasun-eremuan, aerodromoetan, aire-korridoreetan eta mugatutako eremuetan.
- Gauez: debekatuta dago hegan egitea eguzkia sartzen denetik irteten den arte, ordu erdi lehenago.
- Pertsona edo biztanle multzoen gainetik hegan egitea.

3. ARTIKULUA

Aire-trafikorako arauak.

- Bi hegal norabide berean eta kontrako norabidean gurutzatzeko, delta hegaleko bat eskuinera desbideratuko da.
- Hegaleko batek eskuinean mendi-mazela edo beste oztoporen bat badu, lehentasuna izango du. Mendi-mazela ezkerrean uzten duen delta hegala eskuinera egin beharko du, aldez aurretik, igarotzen uzteko.
- Ez aurreratu beste hegala altuera bereko alboetatik, haren maniobratzeko eremuan.
- Altuera ezberdinean hegan doazen bi hegala kasuan, lehentasuna du beherago hegan egiten duenak.

- Termika beraren barruan, lehen sartu den pilotuak zehaztuko du zein norabidetan biratu behar den, zona horretan biratzeko beste norabiderik ezarri ez bada, behinik behin.
- Termika batera sartzerakoan, barruan dauden hegalen zentzu berean biratuko da, ibilbideen martxa eragotzi gabe. Beharrezkoa balitz, termikaren kanpoan zain egon beharko da, biratzen ari diren hegalak altitude batera igo arte; gero, termikan sartuko da.
- Bateratzen diren alboko ibilbideen kasuan, lehentasuna du aireontzi geldoenak edo maniobratzeko aukera gutxien duenak.
- Hona hemen aireontzien lehentasun-ordena: globoa, paraxuta, parapentea, delta hegala, paramotorra, planeatzeko hegazkina, motordun hegazkinak.

4. ARTIKULUA

Hegaldi-eremuko panelak.

Hegaldi-eremuetan panelak egongo dira hegaldi-baldintzei buruz informazioa emateko: Panelek informazio hau bilduko dute, gutxienez:

- Aireratzeko eta lur-hartzeko tokiak.
- Desnibelak.
- Hegaldi-murrizketak.
- Istripu kasuetan nola jokatu.
- Eguneko estazio eta ordu ezberdinetan hegaldi-baldintzak zein egoeratan dauden.

Elkarte antolatzailearen erantzukizuna izango da paneletako informazioa prestatzea.

5. ARTIKULUA

Lehiaketa batek hiru parte-hartzaile izan beharko ditu, gutxienez, ofiziala izateko.